Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

410

Abenduak 1, 2021

Azaroaren 25ean aldarrikapenak kalera itzuli ziren

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Azaroak 25
5 Euskararen Nazioarteko Eguna
6-7 Migratzaileen auzia
8 Kirolak: Santo Tomas Futbito Txapelketa
9 Kirolak: Bidasoa
10 Balazta
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Asun Casasola Ipuin Lehiaketa
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

29228

29241

38311

1921eko abenduaren 11an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak momentu hartako albisteak biltzen ditu. "Vencidos o vencedores" tituluarekin hasten da aldizkariko lehen artikulua eta lehen orrialdea ia osorik betetzen du. Lehen idatzi horren helburu zera da, hiritarrei ikuskatzaileak Irungo Aduanara egindako bisitaren ostean gertatutakoa azaltzea. Jarraian, aldizkariko Tito kolaboratzaileak Gabonetako Loteriaren Zozketarekin loturik kontatutako bitxikeria irakur daiteke. Lehen orrialdea amaitu aurretik, amaitzear den udazkenean euri oso gutxi egin duela azaltzen du E.R.k, euri faltak gaixotasun eta epidemien hedapenean izan dezakeen eragina azpimarratzeko.

Aldizkariaren bigarren orrialdea kirol kronikarekin hasten da, aurreko igandeko partiduko emaitza komentatzeaz eta arbitroaren jokamolde okerra salatzeaz gainera, San Mameseko partiduan gertatutakoa errepasatzen da. Gainera, Amuten jokatuko den hurrengo partiduaren xehetasunak ematen dira eta bertan Patriciori herritarren diru ekarpenen bitartez erositako oparia eman zaiola oroitarazten da. Jarraian, Afrikan dauden Irungo soldaduentzako diru bilketan jasotakoaren berri ematen da. "De todo un poco" atalean hainbat albiste labur biltzen dira. Esaterako, alde batetik, Afrikako soldaduentzako Emakume Langileen Sindikatuak ekoitzitako barruko arropak eta, bestalde, hauteskundeak aipatzen dira. Ostean, "Notas Municipales" atalak azken udal bilkurako erabakiak laburbiltzen ditu.

Hirugarren orrialdean, berriz, Udal Institutu Politeknikoaren etorkizuna bermatzen laguntzeko irakasle, ikasle eta haien senideei laguntza eskatzen die udalak. "Un buen Irunés" goitizenaz sinatzen du kolaboratzaile batek aldizkari honetan Aduanaren gaiarekin loturik argitaratzen den bigarren artikulua. Azkenik, "Ecos de sociedad" eta "Noticias" atal aski ezagunekin amaitzen dira aldizkariko edukiak, publizitate orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
29228: Aduana eraikina, izen bereko kalean kokatua.

29241: Irungo tren-geltokia, ezkerraldean Aduanako instalazioak ikus daitezke (XX. mendearen hasiera)

38311: Bidaiarien garraioa Hendaiako (lehen planoan) eta Irungo Santiagoko ontziralekuen artean, mugazainen kuartela eta Kostorbeko geltokiko dorrea (XX. mendearen hasieran).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Irungo Udal Euskaltegian LANNAHI programaren bigarren txandan izena emateko epea zabalik dago

Irungo Udal Euskaltegiak abian jarriko du LANNAHI programaren bigarren txanda. Programan izena eman nahi dutenek horretarako aukera dute azaroaren 29tik abenduaren 9ra. Langabezia egoeran dauden pertsonei edo %50etik beherako lanaldia dutenei begirakoa da programa eta haren bitartez euskara debalde ikasteko aukera ematen zaie.

Bigarren txandako ikastaroa urtarrilaren 10ean hasi eta apirilaren 13an bukatuko da. Ikastaroa aurrez aurre eskainiko da. Ikasle eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko dira. Udalak programa honen bost txanda eskainiko ditu 2021-2022 ikasturtean: 3 ikasturtean zehar eta 2 udan. Ikasturtean zehar goizeko txandetan izena ematen dutenek lau orduz arituko dira euskara ikasten eta arratsaldeko txandetan, aldiz, 3 orduz. Udan, ordea, lau ordu arituko dira goizez.

Eskaria
LANNAHI programaren 2. txandan izena eman nahi dutenek izen-ematea internetez egin beharko dute, azaroaren 29tik abenduaren 9rako epean. Horretarako, SAC24h zerbitzuaren bitartez Irun Txartela edo beste ziurtagiri digital batzuk erabiliz (NAN elektronikoa, IZENPE txartela...), eta hori ezinezkoa bazaie, HAZeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2) egin ahalko dute matrikula egunero 8:00etatik 22:00etara.

Eskaria internetez egiteaz gain, mailaketa proba egin behar da, Udal Euskaltegian ari direnen edo aurreko ikastaroan aritu direnen kasuan izan ezik. Mailaketa proba egiteko 943 505273 telefonora deitu behar da hitzordua eskatzeko.

Doako ikastarorako betekizunak
Ikastaroa doakoa izateko baldintza batzuk bete behar dira. Batetik, LANBIDEn lan eskatzaile bezala inskribatua egotea. Bestela, langabezian egotea, % 50 edo gehiagoko ABEEn (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea) egotea, edo lanean egonda ere, lanaldiak jardun osoaren % 50 ez gainditzea.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten ikasleek matrikula ordaindu beharko dute. Hala ere, ordaindutako kopurua udalak urtero ateratzen duen beka dealdiaren bidez berreskuratzeko aukera izango dute.

Ficoba erakustazokak Be Veggie jaialdia hartuko du abenduaren 4tik 6ra

Ficobako erakustazokak Be Veggie jaialdi beganoa hartuko du abenduaren 4tik 6ra. Be veggie pertsona beganoen, beganismoaren inguruan interesa duten pertsonen edo beganismoa deskubritu gura dutenen topaleku bat da, parte-hartzaileei ideiak, esperientziak eta ezagutza partekatzeko aukera eskaintzen diena. Bisitari partikularrek eta profesionalek parte hartuko dute Kantauriko erlaitzeko hirugarren jaialdi beganoan. Aurten sarrera doakoa izango da.

Abenduko zubian zehar hitzaldi, kontzertu eta jarduera anitz egingo dira. Be Veggie jaialdira hurbiltzen direnek honako ekintzak hauek topatuko dituzte: Beganoentzako produktu eta zerbitzuen standak, food truck-ak, GKEak eta beste elkarte batzuk, hitzaldi informatiboak, sukaldaritza beganoari buruzko tailerrak eta show cooking-ak, kontzertuak eta yoga-ko masterclass-a. Gainera, bereziki etxeko txikientzako prestatutako ekintzak ere egongo dira.

70 erakusketarik hartuko dute parte hirugarren edizio honetan. Abenduaren 4an eta 5ean, larunbatean eta igandean, Be Veggie jaialdia goizeko 11:00etan hasiko da eta arratsaldeko 20:00ak arte izango ditu ateak zabalik. Astelehenean, abenduaren 6an, berriz, 11:00etatik 16:00ak arte egongo da martxan.

Azokaren helburua elikadura %100 begetalari buruzko ezagutza eta pertsona beganoentzako edo beganismoa ezagutu gura duten pertsonentzako produktuak eta zerbitzuak bultzatzea da. Be Veggie azokara bertaratzen direnek produktu eta zerbitzu sorta zabala izango dute eskuragarri enpresa erakusketarien standetan.

Zerbait deigarria bada, jaialdia Estatu osoko erakusketarien artean izaten ari den oihartzuna da. % 29 Euskaditik dator, eta gainerakoak ia erkidego guztietatik. Valentziako Erkidegoko (% 18), Kataluniako (% 15) eta Madrilgo (% 12) erakusketarien kopurua nabarmentzen da. Nabarmentzekoa da, halaber, erakusketarien % 6 frantziar jatorrikoa dela.

Doako sarrera
Aurten sarrera doakoa izango da. Karteleko QR-a eskaneatuz edo webgunearen bitartez jaialdirako sarrera erreserbatu ahal izango dute bisitariek. Azokara etortzeagatik 100 euroko erosketa-bonu bat irabazi dezakezu. Aurtengo edizioak goi mailako kirolariak, nutrizionistak eta chefak, moda jasangarria eta beganoa, eta santutegiek egiten duten lana ezagutzeko aukera emango du, kosmetika beganoa identifikatzen ikasteko trikimailuez gain. Eta beti bezala musika, DJak eta zuzeneko kontzertuekin girotuko da azoka.
Kontsumo jasangarria
Be Veggie ikusteko, parte hartzeko, ukitzeko eta plater eta edari beganoak dastatzeko lekua da. Kontsumo hori gero eta jasangarriagoa izan dadin, edalontzi berrerabilgarrien zerbitzua eskainiko da.

Sistema erraza da. Ekimen honekin bat egin nahi duten pertsona guztiek 2 euro utzi behar dituzte gordailu moduan Irri Sarriren standean, eta kafea, infusioak eta abar hartzeko edalontzi edo kikara bat jasoko dute. Bioterrako bisita amaitzean, edalontzia itzuli eta gordailuko 2 euroak jasoko dituzte. Azokako hiru egunetan 1000 edalontzi baino gehiago erabiltzeari uztea espero da. Irri Sarri enpresak bultzatu du ekimen hau, eta dagoeneko kikara berrerabilgarrien zerbitzu hau Euskal Herriko hainbat herritan jarri dute martxan.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguneko aldarria euripean entzungai

Irunek bat egin du azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin. Egun osoan euria atertu ez arren, eguraldi txarrak ez zuen eragotzi hiri osoan emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko antolatutako ekitaldiak egitea.

Azaroaren 25eko lehen ekintzak Zabaltza plazako kioskoan egin ziren Bigarren Hezkuntzako bost ikastetxe publikotako ikasleen eskutik. Irungo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasle eta irakasleek indarrak batu zituzten emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako aldarrikapen bat zabaltzeko. Eguraldiak ez zuen lortu Plaiaundiko Gizarteratze graduko ikasleek antolatutako ekintzak zapuztea eta Hirubide, Toki Alai, Txingudi Ikastola eta Eguzkitzako ikasleek Zabaltza plazako kioskoan aterpea aurkitu zuten. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako mezuak eta aldarrikapenak irakurtzeaz gain, indarkeria mota horrek utzitako biktimak oroitu zituzten.

Azaroaren 25eko eguerdiko 12:00etan, berriz, udalbatza, hiriko emakume elkarteak eta bestelako eragileak San Juan plazan egindako elkarretaratzean batu ziren. Bertaratutakoak, ohiko moduan plazan bildu ordez, Irungo udaletxearen arkupeetan elkartu ziren. Elkarretaratzeaz gainera, azaroaren 25ean udaletxeko balkoian puntu morea ipini zen, egun horretan bertan adierazpen instituzionala zabaltzeaz gainera.

Eguna amaitu aurretik, Zabaltza plaza pareko errepidean, performance bat egin zen. M8 Asanblada Feministak antolatuta, gorriz eta beltzez jantzitako emakume talde batek aurten Euskal Herrian eraildako 5 emakumeak irudikatu zituzten. Ekitaldia amaitu aurretik irakurritako manifestuan, minutu bateko isiluneen ordez, emakumeek jasaten duten indarkeria desagerrarazteko instituzioen eta gizarte osoaren konpromisoa eskatu zuten.

Egun bakarretik harago

Irungo Udaleko Berdintasun Zerbitzuak zein hiriko emakume elkarteek hainbat jarduera antolatu dituzte azaroko hilabetean zehar Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin loturik. Zehazki, Bidasoko Elkarte Feministak, Gaurko Andreak Berdintasunaren Alde eta Parean elkarteak egitasmoen antolaketan buru-belarri inplikatu dira. Ekintza horietako batzuk hilabete osoan zehar hedatu dira, esaterako Irungo Udalak sare sozial, bandera eta abarren bitartez abiatutako multimedia sentsibilizazio kanpaina. Sentsibilizazio kanpaina horren lehenengo mugarria ekainean egin zen eta azaroaren 25aren harira berriro jarri da martxan.

Egitarauko beste ekitaldi nagusietako bat azaroaren 27an Ficoban egindakoa izan zen. Izan ere, Irun Beldur Barik ikuskizunaren barnean, lehiaketako sarien banaketa egin zen.

Elkarteen ekarpena

Bidasoaldeko Elkarte Feministak azaroaren 20an Palmera Montero Gunean, "Ez nazazu asko maita, maita nazazu hobeto" mahai ingurua egin zuen. Era berean, hiriko adinekoen lokaletarako jarduerak aurreikusi zituen elkarte horrek, hala nola tailerrak eta "La vida empieza" hoy filmaren emanaldia prestatzeaz gainera. Anakako, Palmera Monteroko, San Migueleko, Belaskoeneako eta Behobiako adinekoentzako udal espazioetan hilabete osoan zehar Sexualitatea zahartzaroan edo Tuppersex bezalako ekintzak egin dira Raquel Calvo sexologoaren eskutik.

Gaurko Andreak elkarteak, berriz, "Violencia de género en la tercera edad y juventud" hitzaldia antolatu zuen, Bizitu elkarteko Inma Mataren eskutik, hilaren 26an elkartearen egoitzan egin zena.

Azkenik, Parean Elkarteak Asun Casasola kontakizun sariketaren VII. edizioa jarri du martxan, lehiaketarako gai berria "Abisatu iristean" izango delarik.

Euskararen Nazioarteko Eguna ahotik plazara

Azken urteotan bezala Irungo Udalak programazio berezi bat prestatu du Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Euskara arloak antolatutako ekintzez gain, programa udaleko Kultura arloak, CBA liburutegiak eta Oiasso Museoak antolatutako ekintzekin osatu da. Ekimen gehienak abenduaren 3ko astean izango dira.

Ez Geratu Begira leloarekin, Irungo Udalak hiritarrak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Irunen antolatuko diren ekintzetan parte hartzera animatu ditu. Miren Echeveste Euskara ordezkariak azaldu duenez, "ohiko moduan Irungo Udalak programazio berezi bat prestatu du data honen inguruan". Hortaz, irundarrek kontzertu, antzezlan, bakarrizketa eta kale animazioen artean aukeratu ahalko dute Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Lehen ekintzak abenduaren 1ean egingo dira. Izan ere, egun horretan bertan Kalean Bai planaren sinatze ekitaldia egingo da Irungo udaletxean. Kalean Bai plana Irungo aisialdiko jarduerak eta ekintzak urratsez urrats euskalduntzeko helburuarekin sortu zen duela urte batzuk. Kalean Bai hitzarmenaren bitartez Irungo elkarteek hainbat konpromiso hartu izan dituzte haien entitateetan eta antolatzen dituzten jardueretan euskara bultzatzeko.

Udalak abiarazitako hausnarketaren ondorioz, Kalean Bai plana berraktibatzeari ekin zaio: hitzarmen berriak sinatuko dira, eta egungo errealitatera egokituko dira. Lan hau faseka egingo da, eta 25 urte bitarteko haur eta gazteentzat eskola-orduz kanpoko jarduerak antolatzen dituztenekin hasiko da lanketa.

Abenduaren 2an, berriz, Alaia Martin eta Sustrai Colina bertsolariak 17:00etan San Juan plazatik abiatuko dira Bertso Saioak Parkez Parke jardunaldian. Helduok haurren aurrean euskaraz aritzeko garrantzia jorratuko dute bertso saioan.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, hainbat ekintza izango dira Irunen. Batetik, CBA liburutegiak Kontukantoi taldearen eskutik kale animazio ekitaldia antolatu du, goizetik eguerdira arte eta 16:00etatik 18:00etara Zabaltza plazatik CBAraino. Oiasso museoak, aldiz, bakarrizketa saio bat antolatu du bere aretoan 18:00etan. Egun horretan bertan, 19:00etan Amaia Kultur Zentroan Idoiaren Neguko Bira kontzertua ikusi eta entzuteko aukera izango da. Idoia Asurmendiren emanaldian 12 abesti eta errezitatu batzuen bidez, goizetik eguzkia erori arte egun bat igarotzea iradokiko du, eszenatokia txikitu edo handituko duten poemekin, argi-jokoekin eta lanparekin.

Abenduaren 4an, beste bi ekitaldi izango dira. 12:00etan San Juan plazatik Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldea Kantujirarekin abiatuko dira. Kantujiran parte hartu nahi duen guztiari kantu liburuxka bat emango zaio haiekin batera kantatu ahal izateko. Egun horretan bertan Amaia Kultur Zentroan 19:00etan Skola Musik akademiak Euskal Musikaren Zertzeladak dokumental musikatua eskainiko du. Dokumentalean Euskal Herrian musikaren esparruan eman eta garatu diren musika estilo batzuk ikusi eta entzuteko parada eskainiko dute, antzinako giro eta soinu-ezaugarrietatik hasita gaur egunekoetaraino. Zuzeneko musika eskaintzen den bitartean, sasoi bakoitzeko artista eta talde esanguratsuen irudiak ikusi ahal izango dira pantaila handian. Emanaldiak ordu eta laurdenetik ordu erdira bitarteko iraupena izango du.

Horretaz gain, bi Mintzodromo Gazte egingo dira Irungo institutuetako 4. mailako ikasleekin. Azaroaren 30ean eta abenduaren 2an izango dira 10:00etatik 12:00etara eta Mendibil Merkataritza Guneko kafetegian egingo dira.

Miren Echeveste Euskara ordezkariak azaldu duenez, ekimen guztiak doakoak izango dira, Perez Sagutxoa antzezlana izan ezik; hau ikusteko ohiko sarrera ordaindu beharko da. Idoiaren Neguko Bira eta Euskal Musikaren Zertzeladak ikusteko berriz, gonbidapena hartu behar da, turismo bulegoan edo interneten bidez. Euskara ordezkariak gogoratu duenez, pertsonako 4 sarrera hartu ahalko dira gehienez.

Haurrak aurrean, helduak heldu

Euskararen erabileran aurrerapausoak emateko nahiarekin eta Euskaraldiaren baitan, Haurrak Aurrean, Helduak Heldu egitasmoa garatuko da azaroaren 22tik abenduaren 5era.

Euskaraldian sustatzen diren portaerak sozializatzen jarraitu eta herritarren praktiketan integratzea da ariketaren helburua, arau sozial bihur daitezen. Horretarako, umeen erreferente eta gertuko diren helduen arteko hizkuntza portaeretan eragitea eta euskararen erabilera areagotzea lortu nahi da; eta horrekin, belaunaldi berriek hizkuntza praktika berriak normalizatu eta barneratzea.

Ariketa honetako xede taldea 0 - 12 urte bitarteko umeekin harreman zuzena duten eta hizkuntza transmisioan zein eredugarritasunean eragina duten herritar helduak dira. Hala nola, gurasoak, hezitzaileak, lagun helduak, zaintzaile eta umeekin egoten diren bestelako senideak, etab.

Aktibazio ekimen hau aurrera atera ahal izateko ezinbestekoa izan da Irungo ikastetxe eta elkarteen laguntza. Irungo Udalak hainbat euskarri (kartelak, lonak, enara, identifikagarriak...) banatuko ditu, ekimena girotzeko eta helduak parte hartzera gonbidatzeko.

Haurrak Parkean

Antolatutako ekimen gehienak abenduaren 3ko astean izango badira ere, azaroko asteazken eta ostiraletan hain zuzen, Haurrak Parkean proiektuan parte hartzeko aukera izan dute 2-10 urteko haurrak dituzten familiek. Proiektu horren helburu nagusia parkeetan eta kalean euskararen erabilera handitzea da, adin tarte horretako haurrentzat antolatutako jolasen bitartez. Azaroko edizioan ekintzak San Juan plazan, Arbium plazan, Juan Sánchez eta Nagore Laffage parkeetan egin dira. Egitasmoaren lehen atala izan da, baina Irungo Udaleko Euskara arloak iragarri du ikasturte honetan zehar horrelako beste bi txanda antolatzeko asmoa duela Haurrak Parkean ekintza hiriko beste zonaldeetara zabaltzeko.

Bidasoa hilobi bihurtu da berriro

Bidasoa ibaiaren urak hilobi bihurtu dira berriro muga zeharkatzen saiatu den migratzaile batentzat. Azaroaren 20an Endarlatsa inguruan paddel surf egiten ari zen pertsona batek aurkitu zuen gorputza. Irungo Harrera Sarea erakundea jazoerarekin atsekabetuta azaldu da, orain dela aste batzuk berriro ere muga zeharkatzeko migratzaileek hartu beharreko arriskuak salatu ostean. Horrela, agintarien erantzukizuna salatu du eta migrazio politiken aldaketaren beharra eskatu du hiritar sareak.

Azaroaren 20an Bidasoa eskualdea atsekabez bete zen, bi herrialdeen arteko muga banatzen duen ibaian migratzaile bat hilik agertu zela jakin ostean. Gorpua topatu zen eremura larrialdi zerbitzuak, Ertzaintzaren helikopteroa eta Gipuzkoako Suhiltzaileak hurbildu baziren ere, ezinezkoa izan zen ibaian itotako migratzailearen bizitza salbatzea. Heriotzaren berri izan eta egun batzuetara jakin denez, hildakoak 38 urte zituen eta Boli Kostakoa zen. Irungo Harrera Sareak migratzailearen identitatea lehenbailehen identifikatzea eskatu du, hildakoen senideei heriotza jakinarazteaz gainera. Izan ere, Irunen migratzaileei harrera egiteaz arduratzen den sareak hildako gizona izenik gabeko biktima berri bat bihurtu dadila saihestu nahi du, familiari beren senidearen heriotzarengatik negar egiteko aukera emateaz gain.

Gertakarien segida

Eskualdean azken urteetan migrazio prozesuarekin lotutako lehen heriotza 2021eko apirilean gertatu zen, pertsona batek ibaiaren ertzean bere buruaz beste egin ostean. Ordutik, 3 pertsona ito dira Bidasoa ibaian eta urrian Ziburuko trenbidean trenak harrapatuta 3 migratzaile hil ziren. Urrutiegi joan gabe, azken itoaldia gertatu aurreko astean, trenak iparraldean azken migratzaile bat zauritu zuen.

Irungo Harrera Sareko kideek ohartarazi dutenez, Bidasoa ibaian gertatutako azken heriotza ezin daiteke gertakari isolatu gisa ulertu. Herritar sareko kideek heriotza testuinguruari erreparatuz ulertu behar dela adierazi dute. Izan ere, migrazio politika bidegabeek migratzaileak beren bizitzak arriskatzera behartzen dituzte. Azken heriotza jakin ostean, Irungo Harrera Sareak salatu du Irun eta Hendaia arteko muga gero eta modu zorrotzagoan itxi dela, migratzaileen zirkulazioa oztopatuz.

Hiritarren erantzuna

Ezbeharra jakin bezain pronto, hiritarrak Bidasoan zendutako pertsona oroitu eta migratzaileek bizi duten egoera gaitzesteko antolatu ziren. Heriotza jakinarazi eta hurrengo eguneko eguerdian, azaroaren 21eko 12:30etan elkarretaratzea deitu zuen Irungo Harrera Sareak (IHS) San Juan plazan. Ehunka hiritarrek deialdiarekin bat egin zuten eta udaletxearen aurrean elkartu ziren. Elkarretaratzean bertan Jon Aranguren IHSko kideak adierazi zuen, "migratzaileak muga Bidasoa ibaia zeharkatuz igarotzeko saiakerak egiten jarraitzen dutela jakin badakigu".

Elkarretaratzean, minutu bateko isilunea gorde ostean, hiritar sareko ordezkariek agintariek migrazioaren esparruan duten erantzukizuna gogoratu zuten, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Irungo Udalari migrazioaren auzian esku hartzea eskatuz. Igandeko eguerdiko elkarretaratzean IHSko Josune Mendigutxiak adierazi zuen, "ariman min ematen badigu ere, ez gaude harrituta, bagenekielako berriro gertatu zitekeela eta hala salatu genuen". Instituzioen axolagabetasunaren aurrean, "instituzioek egin beharko luketen lana geuk egiten dugu" gehitu du Mendigutxiak, nekatuta daudela, ahalegin handia suposatzen diela eta boluntario moduan egiten duten zerbait dela gogoratzearekin batera.

Iluntasunean itxaropen argia

Azaroaren 22ko iluntzean, berriz, Bidasoa ibaiaren gainetik igarotzen den Santiago zubian bat egin zuten mugaren bi aldeetako herritarrek. Iparralde eta Hegoaldeko eragileek deiturik, herritarrak kandelekin, lastargiekin eta esku-argiekin zubiko bi ertzetatik abiatu eta tarteko puntuan elkartu ziren, Frantziako poliziak

modu iraunkorrean zubian kokatutako kontrolaren parean. Bertaratutakoek minutu bateko isilunearekin oroitu zuten Bidasoan hildako azken migratzailea.

Eragileen salaketa eta aldarrikapen mezuen ostean, Diadie Bak hitza hartu zuen, orain dela 10 urte Irunera iritsitako Mauritaniako migratzaile baten hausnarketa bertan bildutakoei jakinarazteko. "Irunera iritsi nintzenean uste nuen Bidasoa ibaian ezin zitekeela inor ito", adierazi du Diadie Bak. Mikrofonoa eskuen artean zuela aprobetxatuz, Diadie Bak Afrikan gertatzen dena Europako agintarien errua dela salatu zuen, denetarik duen herrialdea izanda, adibidez, urrea edo mineralak, ezin baita ulertu Afrikan pobreak izatea. Era horretan, Europa osoari laguntza eskatu dio Diadie Bak, migrazio politikak aldatu daitezen. Ekitaldiaren amaieran mugaren bi aldeetako biztanleek aho batez Mikel Laborearen Txoriak Txori abestia kantatu zuten.

Irungo Udalaren erantzuna

Migratzailearen heriotza baieztatuta, Irungo Udalak gertatutakoaren berri izan ostean José Antonio Santano alkatearen tristura adierazteko prentsa-oharra zabaldu zuen. Gainera, igande goizean udaletxearen aurrean egindako elkarretaratzean udal gobernuko hainbat ordezkarik parte hartu zuten, Miguel Ángel Páez alkateordea buru zutelarik.

Hedabideetara zabaldutako adierazpenean, Jose Antonio Santano Irungo alkateak biziki deitoratu zuen heriotza berria, eta adierazi zuen "izugarri tristea" dela eta "inpotentzia izugarria" eragiten diela "poliziaren kontrolak saihestuz bizitza arriskatzeko eta Bidasoa zeharkatzeagatik bizitza galtzeko prest dagoen jendea dagoela ikusteak". Santanok berretsi zuen Frantziak ulertu behar duela "ezin diogula inori mugako pasabidea itxi, eta are gutxiago hori azkenean tranpa hilgarri bihurtzen bada bere bideari jarraitzeko ahaleginean atzera egiten ez dutenentzat". Alkateak hitz egin du mugako kontrolak birplanteatzeko beharraz, pertsona horiek mugatik pasatzeagatik bizitza jokatzera eramaten ari baitira. Gainera, berriro esan duenez "Europak migrazio-politika komunak ezarri behar ditu batasuneko herrialde guztientzat, drama horiek saihesteko".

Migratzaileen fluxuan gorakada

Era berean, Irungo Harrera Sareak azken asteetan zehar migratzaileen fluxuak gora egin duela antzeman du. Azken asteetan zehar 25-30 migratzaile iritsi dira Irunera. Migratzaileen jarioa handitzeaz gain, emakumeen kopurua modu nabarian handitu da, hirira iritsitako miratzaileen %10a izatetik, azken asteetan %30 izatera pasa dira.

Baldintza desegokiak

Europako migrazio politiken oztopoaz gainera, migratzaileak Irunera iristen direnean harrera baldintza egokiak betetzen ez direla salatu du Irungo Harrera Sareak. Izan ere, Gurutze Gorriak Hilanderas aterpetxean migratzaileek gehienez hiru gau igaro ditzakete. Beste gauza batzuen artean, baldintza horiek migratzaileak eragindako presioak muga edonola zeharkatzen saiatzera bultzatzen dituzte. Are gehiago, azken astean zehar 10 migratzailek gaua kalean igaro behar izan dutela salatu du IHSak, aterpetxean lekua egon arren, gaua bertan igarotzeko aukera ukatu ostean. Josune Mendigutxiak azaldu duenez, IHSko kideek ez dute batere argi zeintzuk diren migratzaileei aterpetxera sartzeko eskatzen zaizkien baldintza zehatzak. Eskakizunetako bat Espainiar estatuan urtebete baino gutxiago egotea da. Josune Mendigutxiak azaldu duenez, "baldintzak jakin ez arren, ondo dakiguna da egunero kale gorrian norbait uzten dutela".

Migratzaileen harrera modu duinean gauzatu dadila bermatzeko, Irungo Harrera Sareak Europan zehar migratzaileentzako korridore seguruak sortzeko beharra adierazi du. Horrekin batera, herrialde batera iritsitako migratzaileek harrera duina jasotzea bermatuta egon beharko litzatekeela gehitu dute IHSko kideek. Horrela, gaitutako baliabideak ez direnez behar bezala kudeatzen, Irun Harrera Sarea bezalako taldeen lana ezinbestekoa dela gogoratu dute.

Bueltan da San Tomas eguneko Futbito Txapelketa

2021ean San Tomas egunaren inguruan berriro ere Futbito Txapelketa izango dela baieztatu da. Aurten, ordea, txapelketa bi zatitan banatuko da, lehen partiduak abenduaren 18an eta 19an jokatuko baitira. Jadanik zabalik dago txapelketan izena emateko aukera. Elixabet Aragon Ibarra Irungo Sare Herritarreko partaidea da eta, orain arte egindako moduan, Futbito txapelketa Uranzu pilotalekuan jokatuko dela azaldu du.

2021 urtearen amaierarekin San Tomas Futbito Txapelketaren antolaketa berreskuratu duzue?
Bai, izan ere, joan den urtean ezinezkoa izan zen txapelketa antolatzea. Aurten ere ez zaigu erraza izan txapelketa aurrera ateratzea, baina ahal den moduan egingo dugu. Jada txapelketa egin ahal izateko lehen pausuak eman ditugu. Aurreko edizioan bezala gehienez 24 taldek parte hartu ahalko dute txapelketan. 2019an San Tomas Eguna igandea izan zenez, txapelketa egun bakarrean egin ahal izan genuen. Aurten, ordea, asteguna denez, bi zatitan banatu dugu. Lehen partiduak aurreko asteburuan jokatuko dira eta finalekoak, berriz, abenduaren 21ean, San Tomas Egunean.

Pandemiak aurtengo edizioaren antolaketa oztopatu ostean, jendea txapelketa jokatzeko gogoz dago?
Bai, hala da. Txapelketaren antolakuntzan hainbat gazte inplikatuta daude eta haiek esan digutenez jendea jada galdezka dabil ea aurten txapelketarik izango dugun. Sare sozialetan aurtengo edizioaren berri eman bezain laster jendea galdezka hasi zitzaigun lehiaketan izena emateko nola egin behar den.

Txapelketa 2019. urtean berreskuratu zen, baina aurretik ospe handia izandakoa zen, ezta?
Bai, aurretik hainbat urtez antolatu izan den presoen eskubideen aldeko txapelketa baita. Urte luzez antolaketa bertan behera gelditu zen eta orain ezinezkoa da txapelketa lehengo moduan antolatzea. Izan ere, egun horrelako ekintza bat egiteko aseguruak behar dira eta antolaketa lan sakonagoa eskatzen du. Txapelketa Uranzu pilotalekuan egiten jarraitzen dugu, betidanik hori izan baita bere tokia.

> **“Aurtengo edizioaren berri eman bezain laster jendea galdezka hasi zitzaigun lehiaketan izena emateko nola egin behar den”**
>
> Elixabete Aragon Ibarra, Irungo Sare Herritarreko partaidea

Beraz, lehen partiduak abenduaren 18 eta 19an jokatuko dira?
Hori da. Abenduaren 18an plangintza egun osokoa izango da eta bertan 16 taldek jokatuko dute. Abenduaren 19an, igandean, goizean bakarrik elkartuko gara eta gelditzen diren 6 taldeen txanda izango da. Horrela, sailkatutako 4 taldeak abenduaren 21eko finaleko partiduak jokatzera pasako dira.

Finala berriz, ohiko egunean, hau da, abenduaren 21ean?
Egia esan, oraindik ez dugu gehiegi pentsatu nola antolatuko ditugun San Tomas eguneko ekintzak. Momentuan indarrean dauden murriztapen neurrietara egokituko gara. Egun horretan, Irunen giza eskubideen alde lan egiten duen talde bati sari bat eman ohi diogu beti eta aurten ere horrela egingo dugu. Taldea aukeratu badugu ere, oraindik haiei jakinarazi ez zaienez, momentuz behintzat ezin dezakegu publikoki aipatu. Aurreratu dezakegun gauza bakarra da San Tomas egunean giro polita izango dugula. Bertan edateko eta jateko aukerarik egongo ez bada ere, jendea Uranzu pilotalekura hurbiltzera gonbidatzen dugu.

Pandemiaren egoera dela eta, neurri berezirik hartu beharko da?
2019an nahiz eta pandemiarik ez izan pilotalekura sartzeko edukiera mugatuta zegoen jada. Orduan jada eraikinera zenbat jende sartu zitekeen kontrolatzen egon ginen, beraz, oraingoan aurreko moduan egingo dugu. Bestetik, gainontzeko guztia nahiko normala izango dela uste dugu.

Zenbat pertsonako taldea izan behar da parte hartu ahal izateko?
Taldeak 8-12 pertsona artekoak izan ahalko dira. Berez, partiduan 5 jokalarik eta atezainak jokatuko dute, baina jende gehiago apuntatzeko aukera ematen dugu azkeneko momentuan jokalaririk falta ez dadin. Talde mistoak izan ahalko dira eta derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea, asegurua egiteko funtsezkoa baita.

Zer egin behar da txapelketan izena emateko?
Izena emateko Internet bidez Google galdetegi bat sortu dugu. Bertan parte-hartzaileen datuak zehaztu behar dira. Ostean, ordainketa egin beharko litzateke. Jokalari bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu eta ordainketa Bizum bidez egingo da. Bildutako dirua alokairua, aseguruak, kamisetak, sariak eta antolaketak eragindako gastuei aurre egiteko erabiliko dira. Behin ordainketa eginda izen-ematea baieztatzen da eta taldeen zozketan sartuko lirateke. Izan ere, partiduak jokatu ahala taldeak eliminatu edo hurrengo faserako sailkatuko dira.

Txapelketa irabazteak saria izango du?
Oraindik ez dakigu zehazki zeintzuk izango diren irabazleek eskuratuko dituzten sariak. Hala ere, txapelketako lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuek sariak izango dituzte ziur.

Informazio gehiago nahi duena nola jarri daiteke zuekin harremanetan?
Informazio gehiago eskuratu nahi duenak torneosantotomas@gmail.com helbidera idazteko aukera du. Bestetik, Twitterren @StTxapelketa eta Instagramen @santotomastxapelketa erabiltzaile izenekin aurkituko gaituzue.

Etenaldi txikia Bidasoaren kirol ibilbide emankorrean

Bidasoa Kirol Elkarteak Pfadi Winterthur HB eskubaloi taldearen aurkako partidua bertan behera utzi behar izan du, partiduaren aurretik egindako konorabirus testetan hainbat positibo atzeman ostean. Etenaldi honekin Bidasoaren kirol ibilbidea egun batzuez pausatuko da, ohiko kirol errutina berreskuratzeko esperoan.

Bidasoa kluba azaroaren 23an Pfadi Winterthur talde suitzarraren aurkako partidua jokatzekoa zen. Azaroaren 22an, berriz, eguna normaltasun osoz hasi zen. Goizean Jacobo Cuetarak prentsaurrekoa eskaini zuen Pfadi Winterthurren aurkako partida aztertzeko eta, bide batez, larunbateko garaipenaren sentsazio onak gogoratzeko. Suitzako partiduaren bezperan jokalariei koronabirus testak egin zitzaizkien, ezusteko emaitzak atzeman zituztenak. Izan ere, zenbait testetan emaitza positiboa diagnostikatu zen, sintomarik ez zuten kirolarietan.

Ondorioz, Bidasoak Europako Eskubaloi Federazioari eta Pfadi Winterthur taldeari egoeraren berri eman zion. Pfadi Winterthur taldeak Europako txapelketan Bidasoaren laugarren aurkaria izan behar zen. Horrela, Europako Eskubaloi Federazioa bi taldeekin batera koordinatuko da lehenbailehen partidua jokatzeko data berri bat zehazteko. Europako Txapelketaren ostean, azaroaren 27an Sacyr ASOBAL ligaren itzulera aurreikusita zegoen, Huerta del Rey kiroldegian, Recoletas Atlético Valladoliden aurka jokatzekoa zen partiduarekin.

Azaroaren 26an iragarri zenez, berriz, Bidasoa Irunek azaroaren 30ean jokatuko zuen EHF European Leagueko bosgarren jardunaldiko partida Orlen Arenan, Orlen Wisstriaren aurka. Partidua, asteburuan ezustekorik egon ezean, jokatzeko moduan zeuden jokalariekin jokatzekoa zen, Osakidetzak ezarritako protokoloa jarraituz.

Bi egun geroago, azaroaren 28an, ordea, Bidasoak Europako Eskubaloi Federazioari jakinarazi zion osasun-protokolo publikoen arabera egindako koronabirusaren diagnostiko-testek emaitza positibo berriak eman zituztela sintomarik ez duten profesionaletan. Ondorioz, berriro neurketa atzeratzea eskatu behar izan dute. Koronabirusak ez du etenik Bidasoa Irun klubeko kirolarien artean, beraz, oraindik itxaron egin beharko da kirol jarduerari berriro ekiteko.

Positiboek eragindako eragozpenen ostean, Bidasoako Kirol Elkarteak eskerrak eman ditu klubeko profesionalek jasotako babesarengatik. Era berean, Pfadi Winterthur klubari, Recoletas Atlético Valladolidi, EHFri, ASOBALi, Espainiako Eskubaloi Federazioari eta zaleei, bereziki Suitzan partidaz gozatzeko esperoan zeuden jarraitzaileei, sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu die.

Kluba lanean ari da EHF European Leagueko laugarren jardunaldiko Pfadi Winterthur HBren aurkako partida ahal bezain laster birkokatzeko. Sacyr ASOBAL Ligan Recoletas Atlético Valladoliden etxean jokatuko den partidari buruz, bi klubek aurreakordioa lortu dute, eta Espainiako Eskubaloi Federazioaren Lehiaketa Batzordearen erabakiaren zain daude. Hori dela eta, Bidasoa Kirol Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Club Balonmano Atletico Valladolidi akordiorako prest egoteagatik.

Aurrekariak
Jacobo Cuetara Bidasoa Irun taldeko entrenatzaileak Torrrelavegaren partiduaren aurreko prentsaurrekoan adierazi zuenez, “Europako partiduak dauzkaten asteek aktibazio azkarrak eskatzen diete jokalariei, eta gorabehera emozionalak izaten dituzte astebetean, errazak ez direnak eta berriro aktibatu behar direnak”. Partida horren aurretik Cuetarak azaldu zuenez, Europako porrot baten “ajearekin” zetorren taldea, ilusioz gainezka baitzeuden partida hori jokatu aurretik. Porrotaren ostean, ordea, Ligako partida bat eta gero Suitzakoa bezalako partida garrantzitsu bat. Horretan ari gara egunotan, Ligak duen garrantziaz, denok dakigunez, baina pistan islatu behar da.

Kirol emaitzak
Kirol arloa bigarren mailan geratzen bada ere, geldialdi honek errotik mozten du Bidasoa Irunek bizi duen une ona, Sacyr Asobal Ligan bost garaipen jarraian lortuta, non bigarren nabarmentzen den. Europako txapelketan final moduko bat bezala aurkezten zen Suitzako partida. Izan ere, multzoko dibisioak, bi talde nagusi izanik (Fuchse Berlin eta Orlen Wisla Plock) eta hirugarren bat (Toulouse) goitik, beste hirurak (Bidasoa Irun, Pfadi Winterthur eta Tatran Presov) laugarren posturako lehian utzi ditu, laugarren hori final-zortzirenetarako sailkatu den azkena izango baita. Etenaldi horrekin azaroaren 23an jokatzekoa zen partida airean gelditu da, baita azaroaren 30ean Poloniako Orlen Wisla Plock taldearen aurka jokatu beharrekoa ere.

Erantzukizuna Covid-aren aurrean
Bidasoa Irunek Artaleku kiroldegian jokatzen diren partidu guztietan pandemiaren zabalkundea saihesteko neurri zorrotzak hartzen jarraitzen du. Horrela, klubeko jokalari, jarraitzaile eta taldea inguratzen duten bestelako profesionalen aurrean kutsaketak gertatzea saihestu nahi da, kirolaren praktika segurua izan dadin. Orain arte jokatutako partiduetan, indarrean dauden murriztapen neurriak errespetatuz, zaletuek Artalekura sartzeko aukera izan dute. Hala ere, Bidasoa Irun taldea zuzenean jokatzen ikusi ahal izateko hainbat neurri errespetatu behar izan dira. Ikusleek maskara une oro behar bezala eramatea nahitaezkoa da eta ikusleei sarbideetan aglomerazioak saihesteko eskatzen zitzaien. Izan ere, sarrerak sektoreen arabera banatzen dira, (1-5 sektoreak, leihatilen ondoko atea; 6-10 sektoreak, kiroldegiko frontoitik), kiroldegirako sarrera modu ordenatuan egin dadin. Horretaz gain, lurrean markak ezarri dira, eserlekuetara edo bestelako zerbitzuetara iristeko. Beraz, hainbat dira kirolaren inguruan hartzen diren neurriak.

Bizikleten erabilera ezari balaztada

Balazta elkartea 2016. urtean sortu zen bizikleta hiriko garraiobide iraunkor gisa erabil dadila sustatzeko helburuarekin. Bizikleten erabilera areagotzen laguntzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Birziklatu proiektuan inplikatu dira eta jarduera aurrera eraman ahal izateko Irungo Udalak Larreaundi auzoan lokal bat mailegatu die. Manu Eizagirre Balaztako kidea da eta elkarteko nobedadeak errepasatu ditu.

Balaztak Larreaundiko lokala estreinatu berri du. Berri ona da elkartearentzat?
Bai, elkartearen jarduera 2016. urtean hasi zen, baina orain arte ez dugu egoitzarik izan. Dena den, egia esan, elkartea Birziklatu proiektuan murgildu den arte ez dugu egoitza beharrik izan. Irungo Udalak Euskal Herri Etorbideko 12. zenbakiko lokala utzi digu, lehen eskolaurrekoa zena. Proiektua aurrera ateratzeko balioko digu. Birziklatu proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiarengatik babestuta dago eta Gipuzkoa osora zabalduta dago. Proiektu nahiko berria denez, oraindik martxan jartzen ari da.

Zertan datza Birziklatu proiektua?
Bizikleta asko eta asko daude ganbaratan gordea edo kalean abandonatuta eta proiektuaren helburua horiek guztiak biltzea da. Horrela, konpondu daitezkeen bizikleta horiek erabiltzea sustatu nahi da, dendara joan eta bizikleta berriak erosteko beharrik gabe. Konponketa txikiren batekin bildutako bizikletak berrerabiltzea posible da. Gaur egun merkatuan piezak lortzeko edo konponketak egiteko zailtasunak daudela ikusi dugu, beraz, bizikleten konpontzeaz gain, piezak lortzeko aukera eskaintzen du proiektuak. Asmoa da konpondutakoak elkartean bertan erabiltzea edo beste elkarteei edo entitateei dohaintzan ematea. Esaterako, orain Irungo Harrera Sareko kideei 4 bizikleta emango dizkiegu.

Beraz, egoitza berrian askotariko ekintzak egingo dira?
Bai, gauza asko egiteko intentzioa dugu. Azaroaren 20an egindako moduan hitzaldiak antolatzeko intentzioa dugu. Lehen hitzaldi horretan Erkuden Almagrok Bizikume proiektua aurkeztu zigun.

Irunen edo Bidasoa eskualdean bizikletaz mugitzeko ohitura dago?
Nahiko konplexua da erantzuna. Jende askoren ikuspegitik bizikleta kirolarekin lotuta dago, baina gure elkartearen jarduerak ez du horrekin zerikusirik, ez baikara kirol elkarte bat. Balazta elkartean bizikleta leku batetik bestera mugitzeko gailu bezala ulertzen dugu. Denok dakigu klima aldaketarekin zer gertatzen ari den eta uste dugu bizikleta garraiobide aproposa izan daitekeela. Ez dugu ezer berririk esaten, denok ezagutzen dugun zerbait da, baina egunerokotasunean ohitura aldaketa bat suposatzen du.

Ohitura aldaketa hori gauzatzeko hiritarrek azpiegitura egokiak dauzkate?
Hori da kontua. Aldaketa gertatzeko guztion bultzada behar dugu eta, noski, erakunde publikoen bultzada behar dugu azpiegiturak egokitu daitezen. Ez hori bakarrik, kotxe eta bestelako ibilgailuetako gidariek errespetuz begiratu behar diote bizikletari. Leku askotan 30 kilometro orduko gehienezko abiadura ezarri da eta hori guztia lagungarria bada ere, talde lana da. Beste adibide batzuei begiratuz ikusi daiteke azpiegiturak emanez gero, jendeak bizikleta askoz gehiago erabiltzen duela. Adibide asko dago, bai hiri handietan zein inguruan dauzkagun lekuetan.

Webgunean eta sare sozialen bitartez hobekuntzak behar dituzten espazioak identifikatzeko lana egiten duzue, ezta?
Bai, Irun, Hondarribia eta Hendaia, nahi edo ez, elkartuta daude. Gure nahia beti izan da hiru hiri horiek modu egokian lotzea. Gainera, bizikletaz ibiltzeko oso eremu aproposa da, ez baitago ez malda handirik, ez distantzia luzerik. Beraz, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko bizikleta erabil daitekeela uste dugu. Denok ezagutzen dugu bidegorri sarearen egoera zein den. Izan ere, puskaka egina dago, loturak falta dira eta batzuek ez dute inongo logikarik. Horregatik, uste dugu hobetzeko asko dagoela. Esaterako, Irun eta Hondarribia lotzen dituen bidegorririk ez dago eta egunero bizikleta erabiltzen duenak kotxe artean eragin behar die pedalei, ezustekoen artean. Horregatik, jende askok bizikleta erabiltzea saihesten du.

Irungo 2022ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan bidegorri sarea osatzea eta konpontzea bozkatu da. Beraz, hiritarren nahia da?
Bai, beste lekuetan gertatu den gisan, uste dugu hemen ere azpiegitura egokiak ematen direnean jendeak bizikleta gehiago erabiliko duela.

Zer egin behar da Balazta elkarteko kide izateko?
Oso erraza da. Webgunearen bidez, emailez edo zuzenean elkartearen egoitzara etorriz azkar batean Balaztako kide egin daiteke edonor. Hiru kuota desberdin dauzkagu. Kuota arrunta, hau da, 18 urtetik gorako pertsonek ordaintzen dutena, urtean 20 eurokoa da. Langabetuek, berriz, 10 euro ordaintzen dituzte eta familientzako 40 euroko kuota eskaintzen dugu, familia unitate osoa kide izan dadin. Bazkide izateak tailerra erabiltzeko eskubidea ematen du. Gainera, prezio sinboliko baten truke bertako piezak edo bizikletak eskuratzeko aukera dago. Bazkide ez denak, ordea, ez du horretarako aukerarik.

Etorkizunera begira, zein proiektu gauzatu nahi ditu Balaztak?
Mila gauza dauzkagu buruan, baina gero egin egin behar dira. Orain arte ez dugu ikastaro askorik antolatu eta horri heldu nahi diogu. Ikastaroak emateko bertan konpondutako bizikletak erabiliko ditugu. Ikastaroek asko irakasten digute guri ere, jendearen beldurrak ulertzeko balio digute eta hori konpontzea ezinbestekoa da bizikleta gehiago erabili dadin. Bestetik, mekanikarekin loturik gauza gehiago ikasi behar ditugu. Inguruan dauzkagun elkarteekin lankidetzan aritu nahi dugu, adibidez, Hendaiako Recycl´Arte, Baionako Txirrind´Ola edo Errenteriako Gurpil Artea, bide honetan elkarrekin goazelako.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

TXINGUDI IKASTOLA LH1



Denbora-pasak

7 hitz: Hotzerako arropa

E	Q	O	O	M	F	B	P	C	O	R	A	D	B
Y	J	V	J	J	S	N	J	E	R	T	S	E	U
E	S	K	U	L	A	R	R	U	A	R	Y	I	F
Q	X	Z	V	U	A	U	T	C	K	Q	K	X	A
M	E	A	J	D	F	F	S	J	A	G	T	X	N
P	S	N	O	X	F	V	A	V	E	A	X	Z	D
U	K	G	Q	R	D	X	B	B	T	F	A	G	A
C	U	O	R	C	F	O	M	X	S	F	N	W	G
W	Z	Z	X	H	F	N	F	N	U	X	O	V	U
X	O	O	F	I	T	O	Q	K	B	H	L	Q	G
J	R	R	A	Q	N	V	B	E	R	O	K	I	I
N	R	R	G	R	Q	K	H	U	G	A	I	A	Y
K	O	O	V	J	M	T	P	A	S	O	C	F	S
X	U	M	C	K	V	S	L	Y	Q	L	W	O	R

Bufanda, eskularru, txano, zangozorro, beroki, jertse, eskuzorro.

			8			7		
		3	4	2				
	4	8			3		2	6
			6					
		9	3				8	4
	3	2			5		9	
		6					7	2
8		4				5	6	
	9	7	5	4				

LEIHOTIK

Doinua: Hogeigarren urtera

Egilea: Iker Altuna Albisu

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

Sorta hau izen bereko 2zio taldearen kantuan oinarritua dago.

1. Gela zuri batean
egunak dira beltz;
ospitalea etxe,
osasuna amets.
Makina bati lotu
behar derrigorrez,
gaitzarentzat adinik
ez dago tamalez.
Makina bati lotu
behar derrigorrez,
horrela bizi ziren
Miren eta Amets.

2. Bertsua bazen ere
bien dolamena,
diferentzia bat zen
aski nabarmena.
Ametsek zuen ustez
oherik onena,
ez politena eta
ez erosoena.
Ametsek zuen ustez
oherik onena,
ganberako leihoa
ondoan zuena.

3. Biak egonagatik
gelan preso katez,
leihoa ihesbide
bat zuten, izatez.
Miren uros izan zen
garai luze batez,
Ametsek deskribatzen
zion dena artez.
Miren uros izan zen
garai luze batez,
mundua ikusten zuen
Ametsen bitartez.

4. "Arreta jar dezagun
zuhaitz-adaxketan,
han txori bat kantari
dabil jostaketan.
Zabalera begira,
zabalguneetan;
ume bat zoriontsu
dabil gordeketan.
Zabalera begira,
zabalguneetan;
bizia sentitzen da
txoko guzietan".

5. Asteburuan eta
astean, orobat,
arreta zuzentzen zen
aldiro leihorat.
Bidaiatu nahi zuten
gelatik kanporat,
beren bizi dorpea
ahaznteko erabat.
Bidaiatu nahi zuten
gelatik kanporat,
hala egiten zuten
munduarekin bat.

6. Baina denborak Miren
zuen erasana,
eta sumatzen ari
zen kontraesana.
Dolu zuen leihorik
hurbil ez izana,
irudikatu behar
Ametsek esana.
Dolu zuen leihorik
hurbil ez izana,
pixka bat pisuago
zen zeraman zama.

7. Amets usaintzen hasi
zen giro goibela,
eta azpimarratu
zion behin honela:
"Sekula ez ahantzi ber
atakan gaudela,
nire bi begi hauek
zureak direla.
Sekula ez ahantzi ber
atakan gaudela,
eta biok izate
bakarra garela."

8. Baina Miren zegoen
zalantzaz josia,
hark ere nahi baitzuen
ikusi ortzia.
Galdera bilakatu
zen diagnosia:
ez al dut nik merezi
hark duen dosia?
Galdera bilakatu
zen diagnosia:
ez al da auzokide
txarra jelosia?

9. Azken horrek, tamalez,
pertsona noizetik
noizera kolpatzen du
barren-barrenetik.
Amets behatu zuen
hurbil-hurbiletik,
eta pentsatu zuen:
"Ken zaitez paretik!"
Amets behatu zuen
hurbil-hurbiletik,
eta haren bihotza
eten zen kolpetik.

10. Leihoraino hurbildu
zen goizean goizik,
eta ezin ulertu
Mirenek zipitzik.
Ez zuen deus sentitzen
harridura baizik,
ezin zuen atera
mingainetik hitzik.
Ez zuen deus sentitzen
harridura baizik,
leihotik haratago
ez zegoen fitsik.

SAN VICENTE DE PAUL DBH1

Nire txisteak

1. Soldadu batek galdetu dio beste bati:

· Zertan ari zara?

· Hemen! Emazteari idazten!

· Eta zergatik idazten duzu hain poliki?

· Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

2. Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bata daukat! Nire puzkarrek ez dute usainik!

- Hori ez da posible!! Bota ezazu bat ora-intxe
bertan!

- PPPPPPPRRRRRR!!!!!!

- Hori oso larria da. Ebakuntza bat behar duzu!!

- Ipurdian?

- Ez, gizona, ez, sudurrean!

Egilea: Eneko Castejón

"Jakinarazi iristen zarenean" esaldia izango da Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren VII. edizioaren abiapuntu

Parean elkarteak Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren edizio berria jarri du martxan. Ipuin lehiaketaren zazpigarren edizioan "Jakinarazi iristen zarenean" esaldian oinarritutako testuak jorratu beharko dituzte parte-hartzaileek. Orain arte egindako moduan, lanak euskaraz edo gazteleraz entregatu ahalko dira eta adinaren arabera bi kategoria bereiziko dira. Ipuinak 2022ko otsailaren 10era arte entregatu ahalko dira.

Lehiaketaren VII. edizioan, aurrekoetan bezala, lau kategoria mantenduko dira. Helduen kategoria 2005 urtera arte jaiotakoentzat izango da, hau da, 16 urtetik gorakoak. Gazteena, berriz, 10 eta 16 urte bitarteko nerabeei zuzendua egongo da, beraz, 2005 eta 2011 urteen artean jaiotakoentzat. Kategoria adinaren arabera bereizteaz gainera, ipuinen hizkuntzarengatik bereiziko dira ere. Izan ere, lanak euskaraz edo gazteleraz aurkeztu ahalko baitira bietan.

Asun Casasola Ipuin Lehiaketak jada zortzi urteetako bidea egin du eta ibilbide horretan 2.000 ipuin inguru aurkeztu dira lehiaketara. Gainera, hirugarren ediziotik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker lehiaketa gazteengana hurbiltzea posible izan da. Horrela, 10-16 urte arteko gazteentzako kategoria berezi bat sortu zen. Antolatzaileek adierazi dutenez, "lehiaketako sail hau bereziki nabarmendu nahi dugu adin tarte horretako nerabe guztiei lehiaketan parte hartzera animatzeko". Era horretan, gazte kategorian nerabeak indarkeria matxistaren aurkako beraien hausnarketak ipuinetan islatzera gonbidatzen dituzte.

Kaleko segurtasun gabezia agerian

Ipuin lehiaketa antolatzaileek iragarri dutenez "jakinarazi iristen zarenean" gaia proposatzen dute aurkeztu berri den edizioko ipuinak girotzeko. Gai hori aukeratu da nahiz eta jakin egun emakumeek jasaten dituzten arazo gehienak etxe barruan gertatzen direla. Emakumeek oraindik, batez ere gauez, etxera itzultzerakoan senideei edo lagunei beren itzulera jakinarazteko sentitzen duten beharra salatu nahi da. Era berean, kaleak emakumeentzako espazio seguruak izan behar direla eta modu librean ibiltzeko eskubidea dutela aldarrikatu nahi da lehiaketarako aukeratutako gaiaren bitartez. Lehiaketako parte hartzaileak gogoeta egitera gonbidatzen dituzte, normala den egoera desnormalizatu eta paper gainean jartzeko.

"Gure helburua berdintasunaren aldeko jendartea bultzatzea eta genero indarkeria baztertzea izan da hasieratik", gogoratu dute Asun Casasola Ipuin Lehiaketako antolatzaileek. Horregatik, edizio honetan ere, ikuspuntu positibo bat bilatuko da, indarkeria matxistaren aurkako borroka islatzen duena. Parte-hartzaile bakoitzak idazlan bakarra aurkeztu ahal izango du, orrialde batekoa. Gainera, ipuinak originala izan behar du, argitaratu gabea eta aurkezten den hizkuntzan idatzitakoa, ez da onartuko itzulpenik.

Asun Casasola, Nagore Laffageren ama, VII. Ipuin Lehiaketaren aurkezpenera gerturatu zen Parean elkarteko kideek lehiaketa aurrera ateratzeko egiten duten lana eskertzeko. Asun Casasolak azaldu duenez, "beste urte batez eta beharrezkoa izango den guztietan hemen izango naiz neska zoragarri hauek egiten duten lana babesteko, oso eskertuta bainago". Nagore Laffageren amak oraindik ere indarkeria matxistaz hitz egiten jarraitzeko beharra ikusten du, indarrak batu eta berdintasunean oinarritutako gizarte bat sortu ahal izateko. Horrela, azaroaren 25aren harira, kalera atera eta borrokatzen jarraitzeko unea dela azaldu du Asun Casasolak, "gizonek bezala, emakumeok bizitzeko eskubidea baitugu". "Izendatzen ez dena, ez da existitzen" esaldiarekin borobildu zuen Asun Casasolak bere adierazpena.

Epeak

Ipuinak bidaltzeko epea azaroaren 25ean hasi zen, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin batera. Parte hartzaile guztiek 2022ko otsailaren 10era arte izango dute ipuinak aurkezteko. Orduan, epaimahaiaren lana hasiko da. Data horietan sari banaketaren eguna iragarriko dugu.

Ipuinak asuncasasolaipuina@gmail.com posta elektronikoko helbidera bidal daitezke. Bestela, posta arrunta erabiliz BDS KOOP-en bulegora (Aixin Zolua Ibilbidea, 5, 20304 Irun, Gipuzkoa) ere bidali edo zuzenean bertan ere utzi daitezke.

Sariak

Kategoria bakoitzeko sari bat egongo da. Helduen kategoriako irabazleek, bai euskarazkoak eta baita gaztelerazkoak ere, 300 euroko sariaz gain, 50 euroko balioa duen liburu pakete bat jasoko dute, Iruñako Katakrak liburu-dendaren eskutik. Gazteen kategoriako irabazleek, bai euskarazkoak eta baita gaztelerazkoak ere, 100 euroko saria jasoko dute, eta 50 euroko balioa duen liburu pakete bat, hau ere Katakrak liburutegiak eskainita. Liburuek feminismoaren inguruko gaiak jorratuko dituzte.

Emakumezkoen epaimahaia

Aurtengo epaimahaia, berriz ere, emakumez osatuta egongo da bere osotasunean. Helduen kategorian, euskaraz, Yurre Ugartek, Ainahara Zuazabeitiak eta Aitziber Zapirainek osatuko dute epaimahaia. Kategoria berdinean, gazteleraz, Mertxe Tranche, Maria Jose Noain eta Marian Benitez arituko dira. Gazteen kategorian, euskaraz, Itziar Gomez, Ainara Maia eta Ane Perez izango ditugu, eta gazteleraz, Noelia Lorenzo, Maite Vergara eta Naroa Gonzalez.

Lehiaketaren oinarriak eta jakin beharreko informazio guztia www.asuncasasolaipuinak.eus webgunean dago eskuragarri. Bestetik, asuncasasolaipuina@gmail.com helbidean lehiaketako antolatzaileekin harremanetan jartzeko aukera egongo da.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

GaztePanela

Gazteen Euskal Behatokian 15 eta 34 urte bitarteko gazteen panel egonkor bat osatu nahi dugu, euskal gazteentzat interesgarriak diren gaiei buruzko kontsultak egiteko erreferentea izango dena.

Eman izena!

Zer da panel bat?
Populazio talde bateko pertsona adierazgarrien talde bat da, aldian-aldian, borondatez informazioa ematen duena. Ematen den informazio guztia anonimoa eta konfidentziala da. Panelean parte hartzea borondatezkoa da; beraz, pertsona bakoitzak erabakitzen du noiz amaitzen duen bere parte-hartzea.

Zertara behartzen nau?
Kontsulta batzuei erantzun beharko diezu inkesten bidez (online edo telefonoz).
Kasu batzuetan, elkarrizketetan eta/edo eztabaida ?taldeetan parte hartzeko laguntza eskatuko dizugu, baina panelean egoteak ez zaitu parte hartzera behartzen, borondatezkoa izango da.

Zenbat aldiz?
Urtebetean 4 kontsulta baino ez dira egingo. Mezu bat iritsiko zaizu posta elektronikoz kontsultaren gaiari buruz informazioa emateko, bete behar duzun inkestarako esteka batekin.

Zer lortzen dut?
Egindako inkesta bakoitzarekin oparien zozketa batean sartuko zara.

Eztabaida taldeetara joatea edo banakako elkarrizketa bati erantzutea kasu guztietan sarituko da.

GaztePanelean izena emateko esteka iGazteren webgunean topatuko duzu.

DJ eta musika ekoizleen lehiaketa

Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketan eta abenduaren 6ra arte dute izena emateko.

DJ eta musika ekoizle gazteen sorkuntzari balioa emateko helburuarekin antolatu du Bilboko Udalak DJ eta musika-ekoizleen lehiaketaren edizio berri hau. Lehiaketan parte hartzeko abenduaren 6a baino lehen eman behar dute izena gazteek, programaren antolatzaileek eskuragarri jarri duten inprimakia betez. Horrez gain, DJ kategoriara aurkezten diren gazteek 20 eta 30 minutu bitarteko bideoa bidali beharko dute eta musika-ekoizleen atalera aurkezten diren horiek, ordea, beraiek sortutako bi pista. Eman izena hemen! Atal bakoitzeko sei finalista aukeratuko dira gehienez eta horien izenak abenduaren 13an argitaratuko dira.

DialogueTOOL

Elkarrizketa Egituratuaren Espainiako Topaketa. K3 ekintza (Erasmus+ Gaztedia)

Apustu pedagogiko desberdin bat, ikaskuntza ez-formalaren bidez metodologia berritzaileen erabilera eta hezkuntzari buruzko hausnarketa uztartzen dituena.

Ekitaldiaren oinarria hezkuntza ez-formalaren esparruko jarduerak dira: tailer teoriko praktikoak, non gazteek zein adituek eta gazteria politiken arduradunek parte hartuko duten.

Norentzat: autonomia erkidego guztietako gazteak

Adina: 18-30 urte

Egunak: abenduak 10-16

Lekua: Albergue Juan Sebastián Elkano aterpetxea (Hondarribia)

Erronka globalen aurrean, gazteak martxan

"Erronka globalen aurrean, gazteak martxan" sariak elkartasuna, garapenerako lankidetza eta Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazteen artean elkartrukea sustatzeko ekimen berri bat da. Deialdiak, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei zuzenduak, gazteak kontzientziatzeko ideia berriak bilatzen ditu.

Horretarako, aurkezten diren gazteek proiektu bat aurkeztu beharko dute, helburu hori duten jarduerak eta ekintzak jasoko dituena. Deialdiak gazteek pentsatutako eta diseinatutako eta gazteei zuzenduta dauden proiektu hoberenak sarituko ditu.

- Sari kopurua eta zenbatekoa: Guztira, 33 sari. 3.000 euroko 3, 1.000 euroko 10 eta 500 euroko 20.

- Nor aurkeztu daiteke: taldeka edo banaka, 18 eta 30 urte bitarteko Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden gazteak. Partaide bakoitzak proiektu batean soilik hartu dezake parte.

- Aurkezteko epea: Azaroaren 10etik abenduaren 9ra arte.

Liburutegiko ikasketa gelaren ordutegia zabaldu da

Azterketa garaia heltzear dela eta, 2021eko azaroaren 13tik 2022ko otsailaren 13ra bitartean "Carlos Blanco Aguinaga" Udal Liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du. Horrela, epe horretan ikasketa gela ondoko ordutegian egongo da irekia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 20:00

Larunbata: 9:00 - 13:00 / 15:00 - 20:00

Igandea: 9:00 - 13:00
– Abenduaren 24an eta 31an: 9:00 - 13:00
– Abenduak 6, 8, 25, urtarrilak 1 eta 6 ITXITA

* Gainontzeko zerbitzuak ohiko ordutegia jarraituko dute.



Abenduak

1

Antzezlana

Zer: Glu Glu konpainiak Perez Sagutxoaren benetako istorioa taularatuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

2

Bertso Saioak Parkez Parke

Zer: Alaia Martin eta Sustrai Colina bertsolariek helduak haurren aurrean euskaraz aritzeko garrantziaz arituko dira.

Non: San Juan plazatik abiatuta.

Ordua: 17:00etan.

3

Umorezko bakarrizketak

Zer: Oiasso museoak bakarrizketa saio bat antolatu du bere aretoan.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 18:00etan

4

Euskal Musikaren zertzeladak

Zer: Skola Musikek Euskal Musikaren Zertzeladak dokumental musikala eskainiko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

5

Antzerkia

Zer: Yllana konpainiak "Opera de locos" antzezlana eskainiko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

10

Dokuirun

Zer: David Truebaren "Si me borrara el viento lo que yo canto".

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



E	Q	O	O	M	F	B	P	C	O	R	A	D	B
Y	J	V	J	J	S	N	J	E	R	T	S	E	U
E	S	K	U	L	A	R	R	U	A	R	Y	I	F
Q	X	Z	V	U	A	U	T	C	K	Q	K	X	A
M	E	A	J	D	F	F	S	J	A	G	T	X	N
P	S	N	O	X	F	V	A	V	E	A	X	Z	D
U	K	G	Q	R	D	X	B	B	T	F	A	G	A
C	U	O	R	C	F	O	M	X	S	F	N	W	G
W	Z	Z	X	H	F	N	F	N	U	X	O	V	U
X	O	O	F	I	T	O	Q	K	B	H	L	Q	G
J	R	R	A	Q	N	V	B	E	R	O	K	I	I
N	R	R	G	R	Q	K	H	U	G	A	I	A	Y
K	O	O	V	J	M	T	P	A	S	O	C	F	S
X	U	M	C	K	V	S	L	Y	Q	L	W	O	R

9	2	5	8	6	1	7	4	3
6	7	3	4	2	9	8	5	1
1	4	8	7	5	3	9	2	6
7	8	1	6	9	4	2	3	5
5	6	9	3	7	2	1	8	4
4	3	2	1	8	5	6	9	7
3	5	6	9	1	8	4	7	2
8	1	4	2	3	7	5	6	9
2	9	7	5	4	6	3	1	8

EGUBERRIETAKO ARGAZKI SAIOAK

60€

HITZORDUA ESKATU!

INFO FOTOGOVER.COM

943 840 113 - 647 930 484

WHATSAPP - 943 840 113

LETXUNBORRO HIRIBIDEA 100, 2A
IRUN 20305 GIPUZKOA

FOTOGRAFÍA ESTUDIO GO VER